

2020ko Urtarrila-Maiatza
Enero-Mayo 2020

Ikuskizunen egitaraua | Programa de espectáculos

ermuantzokia.



URTARRILAREN 3^{an} ENERO

Go!azen 6.0. PAUSOKA

A las 17:00 y a las 19:00etan | Entrada: 6 €

Zuzendaritza / Dirección: Itziar Gómez Sarasola Antzezleak / Intérpretes: María Redondo, Danae Riaño, Xanti Korkostegi, Lorea Intxausti, Nikola Zalduegi eta Xabi San Sebastián Iraupena / Duración: 80 min. + 5 urte / años

Uda iritsi da eta berriz ere Basakabik bere atea zabalduko ditu. Baina aurten, aldaketa handiekin: Zuzenek bere kargua utzi du, Telmo kontratatu dute gerente lanak egitera eta ikasle berriak iritsiko dira. Aldaketa guzti horien aurrean, Zurik ez du ondo pasako udalekuan.

Enekorentzat ere, gauzak ez dira errazak izango. Futbolari profesionala izatekotan dago, baina udara honetan dena albo batera utzi, eta Maddi bere neskalagunarekin eta Igor lagunarekin ondo pasa besterik ez dauka buruan. Aitaren ideia bestelakoa da, ordea, Enekok entrenatzen burubelarri jarrai dezan smartwatch bat ekarriko baitio Basakabira.

Bitartean, June eta Maddik, sekretuz eta gezurrez beteriko euren adiskidetasun harremana mantentzeko borrokatuko dute. Sakonean, haiek uste duten baina antzekoagoak direla konturatuko diren arte.

Aurreko urteetan bezala, umorea, musika eta dantza izango dira aurten ere, antzerki funtzioko ardatzak dira.

Llega otra vez el verano y Basakabi abre sus puertas. Este año, sin embargo, presenta grandes novedades: Zuzen ha dejado su cargo, han contratado a Telmo para las labores de gerente y van a llegar alumnos nuevos. Ante todos estos cambios, Zuri no lo va a pasar bien en la colonia.

Y las cosas tampoco van a ser fáciles para Eneko. Quiere ser futbolista profesional, pero este verano lo deja todo de lado y en lo único que piensa es en pasárselo bien con su novia Maddi y su amigo Igor. Pero su padre tiene otra idea: le lleva a Eneko un smartwatch a Basakabi, con la condición de que siga entrenando a tope.

Mientras tanto, June y Maddi luchan por mantener una relación de amistad llena de secretos y mentiras. Hasta que se dan cuenta de que son más parecidas de lo que ellas creían.

Al igual que en años anteriores, el humor, la música y la danza son los ejes principales de esta función de teatro.

HAURRENTZAKO MUSIKALA /
MUSICAL INFANTIL (Euskeraz)



Basakabirik antzokira



URTARRILAREN **24**an ENERO

Ocaña. LA DRAMÁTICA ERRANTE

A las 22:15ean Sarrera / Entrada: 10€

Egilea / Autor: Unai Izquierdo Zuzendaria / Dirección: María Goiricelaya Antzezleak / Intérpretes: Mikel Losada, Itziar Lazkano, Unai Izquierdo y Diego Pérez. Iraupena / Duración: 80 min.



ANTZERKIA / TEATRO

Bartzelona, 1970eko hamarkada. Francoren diktadurako azken urteak dira.

José Pérez Ocaña pintore sevillarra borrokan ari da bere pinturak aurrera ateratzeko eta mundua aldatzeko.

Borroka politikoarekin eta homosexualen aldarrikapenekin lotura estua zuela, Ocaña gertakari entzutsuen protagonista izan zen Kataluniako hiriburuko Ramblan, Camilo eta Nazario bere bidelagun kutunekin batera.

Askatasunaren bila zebilen etengabe, eta bere jaio-terriara, Cantillanara, aldizka itzultzen zenean, familiaren onspena bilatzen saiatzen zen, bere izaera onar zezan. Maitasunik ezaren samina eta inoiz ulertu ez zuen gizarte baten mespretxua jasan zituen pertsonaiak.

Orain, berpiztu egin da Ocaña, bere historia ezinbestez kontatu beharrekoa baitzen.

Barcelona, años 70. Últimos años de la dictadura franquista.

El pintor sevillano José Pérez Ocaña lucha por sacar a flote sus pinturas y cambiar el mundo.

Íntimamente ligado a la lucha política y la reivindicación homosexual, protagonizó sonados episodios en Las Ramblas de la capital catalana junto a sus inseparables compañeros de viaje: Camilo y Nazario.

En una búsqueda continua de libertad, de vuelta a su Cantillana natal en periodos intermitentes, intenta que su familia acepte su propia naturaleza. El personaje sufrió en sus carnes el desamor y los desaires de una sociedad que nunca le entendió.

Ahora, Ocaña vuelve a cobrar vida porque esta historia siempre debió contarse.

URTARRILAREN **25**ean ENERO

Big Dani Pérez

A las 20:00etan | Sarrera / Entrada: 10€

Lobiano Kulturgunean



1979an Bartzelonan sortua, saxofoi jotzaile handienetakoa da estatu mailan eta Jump Blues, Rock & Roll, Rhythm & Blues eta Boogie-Woogie estiloen esparruan.

Nel.lo ordezkaturik Dani bihurtu zen Espainian egindako Rock & Rollaren aitzindari eta erreferente Carlos Segarra-ren Los Rebeldes taldeko kide. Dani Perezek leku askotako talde eta artista ugariri eskaini izan dizkie bere soinua eta musika egiteko antzea. Rock & Rollaren esparruaren baitan, Carl Perkins ("Blue Suede Shoes" mitikoaren egilea), Dale Hawkins (50. urteetako beste mito bat, "Susie Q" gaiaren egilea), Billy Lee Reely eta estatubatuar doo-woopeko abesbatzekin partekatu ditu agertokiak; Rhythm & Blues esparruan, berriz, Barrence Whitfield (The Savages taldeko burua), Sam Cockrell baxu jotzaile handia (ohikoa James Brown eta B. B. Kingen taldeetan) eta berriki zendutako Koko Taylor izan ditu aldamenean.

Nacido en Barcelona en 1979, Dani Pérez es uno de los más reconocidos saxofonistas de la escena estatal en el campo del Jump Blues, Rock & Roll, Rhythm & Blues y Boogie-Woogie.

Dani Pérez ha prestado su sonido y saber hacer musical a infinidad de formaciones y artistas de las más diferentes procedencias. Entre los más destacados dentro del Rock & Roll ha compartido escenario con Carl Perkins (el mítico autor de "Blue Suede Shoes"), Dale Hawkins (otro mito de los 50 autor "Susie Q"), Billy Lee Reely y los grupos vocales de doo-woop estadounidenses The Cadillacs y The Cleftons; en el Rhythm & Blues lo ha hecho junto a Barrence Whitfield (líder de The Savages), el reconocido bajista Sam Cockrell (habitual en las formaciones de James Brown y B. B. King) y la recientemente desaparecida Koko Taylor.

URTARRILAREN **31**ⁿ ENERO

KONTZERTUA / CONCIERTO

Noche Sabinera. LA AUTÉNTICA BANDA DE JOAQUÍN SABINA.

A las 22:15ean | Sarrera /Entrada: 12€

Musikariak / Músicos/as: Pancho Varona, Antonio García de Diego, Jaime Asúa, Mara Barros y Paco Beneyto.



Pancho Varona, Antonio García de Diego eta Jaime Asua ehun kanta baino gehiagoren egileak dira, Joaquín Sabinarekin batera. Bere ohiko musikariek eta disko batzuen ekoizleek bira egiten dute «Noche Sabinera» izeneko ikuskizunarekin. Show handi hori 2006. urtean sortu zen, eta Espainia osoan eta Latinoamerikan zehar bidaiatu du urteotan. Taldeko azken kideak honako hauek dira: Mara Barros, Sabinaren egungo kantari solista, Espainiako ahotsik onenetakoa, eta Paco Beneyto, Viceversa talde mitikoko bateria-jotzailea, Sabinarekin zuzeneko disko bat grabatu zuena. Kontzertuak bi zati ditu, eta bi ordu irauten du gutxi gorabehera. Lehen zatian, taldeak «Úbedako argalaren» kantarik ezagunenen errepaso egiten du; bigarrean, berriz, entzuleak agertokira igo daitezke, taldearekin batera nahi duten abestia kantatu eta «egun batez Sabina» izateko.

Pancho Varona, Antonio García de Diego y Jaime Asúa son coautores, junto a Joaquín Sabina, de más de cien canciones. Músicos de cabecera y productores de varios de sus discos. “Noche Sabinera”, es un gran show nacido en 2006, que ha viajado a lo largo de estos años por toda España y Latinoamérica. Completan la banda Mara Barros, actual cantante solista de Sabina, y Paco Beneyto, batería del mítico grupo Viceversa, con quien Sabina sacó disco en directo. Dividido en dos partes, el concierto dura unas dos horas aproximadamente. En la primera parte la banda hace un repaso por los temas más populares del flaco de Úbeda y en la segunda el público puede subir con ellos a cantar el tema que elijan y ser “Sabina por un día”.

OTSAILAREN **7**^{an} FEBRERO

El coronel no tiene quien le escriba.

IMANOL ARIAS, CRISTINA DE INZA...

A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 15 €



ANTZERKIA / TEATRO

Egilea / Autor: Federico Gabriel García Márquez
Egokitasuna / Adaptación: Natalia Grueso Zuzendaria / Dirección: Carlos Saura Antzezleak / Intérpretes: Imanol Arias, Cristina de Inza, Jorge Basanta, Fran Calvo y Marta Molina. Iraupena / Duración: 80 min.

Koronel zaharra eta bere emaztea miseria gorrian bizi dira, gobernuaren gutun baten zain. Gerrako zerbitzuengatik agindutako pentsioa emango diotela jakinarazi behar diote gutun horretan. Halere, gutuna ez da heltzen, eta, bitartean, bikote zaharra ozta-ozta bizi da, pobrezia latzean. Gainera, borroka-oilar bat elikatu behar dute, bizirik irauteko itxaropen bakarra delako. Denborak aurrera egiten du eta, gutuna iristen ez denez, erabaki bat hartu beharko dute: oilarra elikatzea edo beraiek biak elikatzea. Herritarren diruzalekeria, ustezko lagunen lukurreria, hala-beharra eta gerraren ergelkeria gehitzen zaizkio koronelaren bakardadeari. Bizitzak behea jota utzi du, baina bi altxor ditu oraindik koronelak: emaztearen maitasuna eta bere duintasuna.

El viejo coronel y su mujer viven en la miseria, esperando la carta del gobierno en la que le comuniquen la concesión de la pensión prometida por sus servicios durante la guerra. Pero esa carta nunca llega y mientras tanto la vieja pareja malvive en la pobreza alimentando a un gallo de pelea, que es su única esperanza de supervivencia. A medida que avanza el tiempo y la carta sigue sin llegar, deberán enfrentarse a un dilema: alimentar al gallo o alimentarse ellos. La codicia del pueblo, la usura de los supuestos amigos, la fatalidad y estupidez de la guerra, se mezclan con la soledad del viejo coronel vencido por la vida pero al que aún le quedan dos tesoros: el amor de su mujer y la dignidad.

OTSAILAREN 14an FEBRERO

Rita, ARRASTOAN SARTZEN. TXALO PRODUKZIOAK

A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 10 €

Egilea /Autor: Willy Russell Zuzendaria / Dirección: Begoña Bilbao Antzezleak / Intérpretes: Aitziber Garmendia eta Joseba Apaolaza. Iraupena / Duración: 90 min.

Frank, Unibertsitateko literatura irakasleari, ikasle berri bat etorri zaio: Rita, ile-apaintzailea. Bi mundu aparte. Irakaslea etsiak jota dagoen poeta da, amore eman-dakoa, baina Ritaren agerpenak berpiztuko du. Ikasleak ikastea maite du eta irakasleak maitatzen ikasiko du. Sarritan, ikaslea bera izan ohi da irakaslerik onena.

Frank, profesor de literatura en la Universidad, recibe a una nueva alumna: la peluquera Rita. Son dos mundos totalmente distintos.

El profesor es un poeta frustrado, fracasado, pero la aparición de Rita le hará renacer. La alumna ama aprender y el profesor aprenderá a amar. Muchas veces, el propio alumno es el mejor profesor.



ANTZERKIA / TEATRO
(Euskeraz)

OTSAILAREN 15ean FEBRERO

The Allnighters

A las 20:00etan | Sarrera/Entrada: 10€

Lobiano Kulturgunean



Gasteizen kokatu behar dugu hasiera, 1988ko uda beroan. Hutsetik abiatu eta gogotik lan eginda penint-sulako erreferentziatzko talde bihurtu zen 90. urteetan musika beltzari dagokionez.

Zuzeneko emanaldietan indar handiko taldea denez, milaka kilometro egin izan ditu, eta maila handiko musikariekin partekatu izan ditu agertokiak, estilo desberdineko hamaika musikarirekin, horien artean aipagarri, besteak beste, Wilko Johnson, Nine Below Zero, Barrence Withfield, Bill Thomas, Kenny Neal, Ian Dury, The Blues Brothers Band, Lazy Lester, Melvin Davis, Eli Paperboy Reed eta Swamp Dogg. Talde honen emanaldi bakoitza benetako jai bihurtzen da, hori bat, "Soulful Rhythm & Blues" etxeko markarekin.

CONCIERTO DE BLUES KONTZERTUA

Todo empezó en Vitoria-Gasteiz el caliente verano de 1.988. Partiendo de cero y a base de trabajo y tesón se convirtieron durante los años 90 en una banda de referencia en cuanto a la música negrapeninsular.

Su reputación como banda de directo avasallador les ha llevado a hacer miles de kilómetros y a compartir escenarios a lo largo de su carrera con músicos de la talla de Wilko Johnson, Nine Below Zero, Barrence Withfield, Bill Thomas, Kenny Neal, Ian Dury, The Blues Brothers Band, Lazy Lester, Melvin Davis, Eli Paperboy Reed, Swamp Dogg y un larguísimo etcétera de bandas de diversos estilos. Cada uno de sus bolos es una auténtica fiesta con la marca de la casa, "Soulful Rhythm & Blues".

OTSAILAREN **28**an FEBRERO

La bien querida. EN ACÚSTICO.

A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 10 €



KONTZERTUA / CONCIERTO

Maketa atera zuenean, milaka musikazale maitemindu zituen Ana Fernández Villaverdek. Abestiek abiapuntu xumea zuten, baina li-luragarriak ziren beren edertasunean. Amodioari eta desamodioari buruzko poesia zoragarriak ziren.

Anaren diskoek publikoaren harrera bikaina lortu dute, etxeko grabazioek islatzen zutena baino askoz urrunago heldu nahi duela erakutsiz: runbarekin, arabiar eraginarekin eta musika elektrokoroarekin egiten dituen jolasek, den-denak dosi txikietan nahasita, argi uzten dute Anaren diskurtso musikalak indar handiagoa hartu duela, letra ederrez eta melodia zuzenez lagunduta. Arrakasta horri esker, komunikabiderik garrantzitsuenetako batzuen azaletan agertu da (esaterako, EP3-El País, MondoSonoro eta Rockdelux aldizkarietan), jaialdi nagusietako batzuetan parte hartu du (Primavera Sound eta FIB jaialdietan, besteak beste) eta lehen postuan kokatu da urteko onenen zerrenda askotan, hala nola Rockdelux ospetsuan. Eta Anak oraindik asko duela eskaintzeko iruditzen zaigu.

Ya con su maqueta, Ana Fernández-Villaverde cautivó a miles de melómanos/as. Sus canciones partían de un principio simple pero con una belleza que desarmaba, fabulosas poesías de amor y desamor.

Sus discos han sido ampliamente aclamados por el público y en ellos demuestra cómo su ambición va mucho más allá de lo que reflejaban aquellas grabaciones caseras: sus jugueteos con las rumbas, con las influencias árabes y la electrónica, todo en sutiles dosis, demostraba que su discurso musical ganaba todavía más fuerza junto a sus preciosas letras y sus melodías directas. Todo esto le ha granjeado portadas en algunos de los medios más importantes (EP3-El País, MondoSonoro, Rockdelux), actuaciones en los festivales más importantes (Primavera Sound, FIB) y el número 1 de múltiples listas de lo mejor del año, entre ellas la prestigiosa RockDeLux. Y siempre con la sensación de que a Ana todavía le queda mucho que ofrecer.

OTSAILAREN **29**an FEBRERO

Hansel eta Gretel.

BOROBIL TEATROA

A las 17:00etan | Sarrera/Entrada: 4€

Egileak /Autores: Hnos. Grimm anaiak Zuzendaria / Dirección: Anartz Zuazua Antzezleak / Intérpretes: Kepa Errasti, Libe Aranburu eta Asier Oruesagasti. Iraupena / Duración: 50 min. + 5 urte / años

Kondairaren arabera, baso batean karameluzko sagarrak ematen dituen zuhaitz bat dago, eta sagar horiek dastatzen dituen inoiz ez da handik irteten. Ander eta Greta baso horretan galdu dira. Anderrek txori hori bati jarraitzen dio. Bat-batean, txoria zuhaitz baten adarretan pausatzen da, eta zuhaitza karameluzko sagarrak ematen hasten da. Ander go-seak amorratzen dago, eta haginka egiten dio sagar bati. Orduan, lurrak irensten du. Gretak beste sagar bat dastatzen du, eta bera ere lurrak irensten du...

Según cuenta la leyenda, existe un bosque en el que hay un árbol que da manzanas de caramelo y quien las prueba no vuelve a salir nunca de él. Ander y Greta se pierden en el bosque. Ander se deja guiar por un pájaro de color amarillo. El árbol en el que está posado el pájaro empieza a dar manzanas de caramelo. Ander está muerto de hambre y muerde una. Se lo traga la tierra. Greta prueba otra y también se la traga la tierra....

HAURRENTZAKO ANTZERKIA /
TEATRO INFANTIL (Euskeraz)

HANSEL eta GRETEL

MARTXOAREN **6**an MARZO

Elisa y Marcela. A PANADARIA

A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 10€

Zuzendaritza / Directora: María Goiricelaya Egileak eta antzezleak / Autoras e intérpretes: Areta Bolado, Noelia Castro y Ailén Kendelman Iraupena / Duración: 80 min.

ANTZERKIA / TEATRO

1901. urtea, A Coruña. Bi emakume ezkontzen dira San Xurxoko elizan, haietako bat gizonez jantzita. Polizia-jazarpenak, diligentzia bidezko ihesaldiak, nortasun-aldaketak eta manipulatuak informazioak gertatzen dira historia honetan. A Panadaria taldeko komikoek benetako gertakari baten berreraikitze lotsagabea aurkezten dute. Komedia musikal honetan, egiak asmakizuna dirudi. Kontradenborazko amodio-istorioa da Elisa eta Marcelarena.

Publikoaren saria Ribadaviako 34. Nazioarteko Antzerki Jaialdian. Ikuskizunik onena, zuzendaritzarik onena, jatorrizko testurik onena eta aktore protagonistarik onena (Areta Bolado) 2018ko Maria Casares sarietan. Publikoaren saria eta aktoresarik onenaren saria (ex-aequo) FETEGA 2018 jaialdian. 2017ko Luisa Villalta berdintasunaren saria. ALAS kolektiboaren XIV. Marcela e Elisa LGBT saria.

Año 1901, A Coruña. Dos mujeres se casan en la iglesia de San Xurxo, una de ellas vestida de hombre. Una historia de persecuciones policiales, huidas en diligencia, cambios de identidad e informaciones manipuladas. Las cómicas de A Panadaria presentan una reconstrucción irreverente de un suceso real. Una comedia musical donde lo verídico parece invento. Elisa y Marcela es una historia de amor a contratiempo.

Premio del Público 34 Mostra Int. de Teatro de Ribadavia. Mejor espectáculo, Mejor Dirección, Mejor Texto Original y Mejor Actriz Protagonista (Areta Bolado) en los Premios María Casares 2018. Premio del Público y Premio Mejor Actriz (ex-aequo) FETEGA 2018. Premio de Igualdad Luisa Villalta 2017. XIV Premio LGBT Marcela e Elisa del Colectivo ALAS.




MARTXOAREN **13**^{an} MARZO

Dani Fernández

A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 15 €

KONTZERTUA / CONCIERTO



Bi urte behar izan ditu Dani Fernandez kantari eta konpositoreak bakarkako lehen diskoa plazaratzeko. Lehenbizi, bi bira arrakastatsu egin ditu Espainian zehar, bere kontzertuetako sarrera guztiak hilabete batzuk lehenago salduta. Orain, «Incendios» diskoa errealitate bat da. Diskoa prestatzen emandako bi urteetan, barrera husteko eta terapia egiteko aukera izan du bere kanten bidez. Artistak dioenez, «ahalegin handiz ikasi dut gauzek batzuetan euren denbora behar dutela eta makina ez dela bortxatu behar» Hala, hasierako amorrua eta amore emateko gogoa orbaintzen ikasi du, eta orbainen gainean gai autobiografiko mordo bat sortu. Halaber, Andrés Suarez, Marwan, Luis Ramiro eta Diego Cantero «Funambulistaren» konposizio batzuk ere sartu ditu diskoan, bere erreferente nagusiak direlako. Horrela, desamodioz eta erresaka sentimentalz betetako tracklista osatu du.

Dos años se ha hecho esperar el primer trabajo en solitario del cantante y compositor Dani Fernández. Después de realizar dos exitosas giras por toda España, vendiendo todas las entradas para sus conciertos con meses de antelación siempre, “Incendios” ya es una realidad. Si de algo han servido estos más de dos años de preparación del disco -en los que el artista reconoce “haber aprendido, con mucho esfuerzo, a que las cosas a veces tienen sus propios tiempos y no hay que forzar la máquina”- es para convertir sus temas en un vehículo para desahogarse y hacer terapia. Ha aprendido a transformar esa rabia inicial y esas ganas de tirar la toalla en cicatrices sobre las que edificar un buen puñado de temas autobiográficos, a los que acompañan composiciones de Andrés Suárez, Marwan, Luis Ramiro o Diego Cantero “Funambulista”, a los que Fernández cita como grandes referentes y que han completado un tracklist repleto de desamor y resaca sentimental.

MARTXOAREN 14^{an} MARZO

Ash Grunwald band

A las 20:00etan | Sarrera/Entrada: 10 € | Lobiano Kulturgunean

CONCIERTO DE BLUES KONTZERTUA

Bederatzi disko hamabi urteren buruan, bada zer edo zer. Ash Grunwaldek zuzenaldi txalogarriak ematen ditu bere sor-terrian, entzuleek zein adituek miretsia da, eta azken sei urte honetan Australiako eta Zeelanda Berriko aretoak bete ditu. Arrakasta eduki du Estatu Batuetan, Kanadan eta Erresuma Batuan. Aldamenean izan ditu James Brown, The Black Keys, Jack Johnson, Bo Diddley, The Cat Empire, Missy Higgins eta Pete Murray. Australiako hedabideek benetako izartzat daukate: ahots zakar eta sakonez, hegazkinlari betaurrekoz eta sex-appeal dariola berak zirkinik egin behar izan gabe, samaldaka batzen ditu jarraitzaileak

Con una prolífica carrera que abarca 9 discos en 12 años, Ash Grunwald tiene uno de los directos más respetados de su país. Aclamado por prensa y público, lleva agotando entradas en Australia y Nueva Zelanda durante los últimos 6 años. También ha girado con éxito por USA, Canadá y Reino Unido. Ha actuado junto a James Brown, The Black Keys, Jack Johnson, Bo Diddley, The Cat Empire, Missy Higgins y Pete Murray. La prensa de su país habla de una auténtica estrella del rock sobre el escenario, de voz rústica y profunda, ataviado con sus gafas de aviador y derrochando sex-appeal casi sin querer, atrayendo a audiencias masivas.

MARTXOAREN 27^{an} MARZO

Bizi Dantza.

PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS

A las 17:00 y a las 19:00etan | Sarrera/Entrada: 6€

HAURRENTZAKO IKUSKIZUNA /
ESPECTÁCULO INFANTIL
(Euskaraz)



Lurra sortu zen unetik bertatik, jirabiraka dantzari hasi zen bere buruaren eta eguzkiaren inguruan. Animaliak ere sortu ziren unetik bertatik, dantzari dabilta luraren inguruan. Geu ere hitzaren jabe izan aurretik dantzatzen gara, zaldiak, izurdeak eta tximeletak bezala. Pozak eta tristurak azaltzeko dantzatzen gara. Barruak agintzen digunean dantzatzen gara. Gure kultura ospatu eta errituak berritzeko. Garen hori mugimenduan jartzeko. Zangoak luzatuz, gerria mugituz, hegoak astinduz eta ur azpian ere dantzatzen gara gu. Zatoz gurekin dantzara, atera zure barruko animalia plazara!

Desde el mismo momento de su creación, la Tierra comenzó a bailar girando sobre sí misma y alrededor del sol. Asimismo, los animales bailan alrededor de la Tierra desde el mismo instante de su nacimiento. También nosotros bailamos antes de comenzar a hablar, como los caballos, los delfines y las mariposas. Bailamos para expresar nuestras alegrías y tristezas. Bailamos cuando nos lo ordena nuestro interior. Para celebrar nuestra cultura y renovar nuestros ritos. Para poner en movimiento lo que somos. Bailamos estirando las piernas, moviendo la cintura, sacudiendo las alas y debajo del agua. Ven a bailar con nosotros, saca el animal que llevas dentro.

APIRILAREN **3**an ABRIL

Cyrano de Bergerac. JOSÉ LUIS GIL, ANA RUIZ...


A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 15€

Egilea / Autor: Edmond Rostand Zuzendaritza / Dirección: Alberto Castrillo-Ferrer Antzezleak / Intérpretes: José Luis Gil, Ana Ruiz, Héctor González, Carlos Heredia, Rocío Calvo, Ricardo Joven y Javi Ortiz. Iraupena / Duración: 125 min.

José Luis Gil antzezlea Cyrano de Bergerac da, Frantziako klasikorik ezagunena, Edmond Rostanden lanaren bertsio honetan. Historia entretenigarri bezain erromantikoa da, betierekoa, une zoragarriak eta elkarriketa pipertsuz beteak. Teatro Rojas sarietako XXVI. edizioa (2018) gizonezko aktore onenaren saria (José Luis Gil) eta zuzendaritza eszenikorik onenaren saria (Alberto Castillo-Ferrer).

José Luis Gil es Cyrano de Bergerac, clásico francés por excelencia en la versión de la obra de Edmond Rostand. Una historia tan divertida como romántica, imperecedera, llena de momentos sublimes y diálogos chispeantes en la que encontrarás aventura, pasión, tensión, humor, belleza, amor y desamor. XXVI Edición 2018, Premios Teatro Rojas, mejor interpretación masculina José Luis Gil y mejor dirección escénica con Alberto Castrillo-Ferrer.

ANTZERKIA / TEATRO



Arizona Baby

A las 22:15ean Sarrera/Entrada 10€

Arizona Baby mugarria izan da espainiar musikaren historian. Soinu-zorroztasuna eta oinarritzko filosofia dira taldearen ezaugarri nagusiak. Nortasun horrekin, aitzindariak izan ziren Espainian neofolk akustikoan eta bizardun mutilen irudian (haien ostean hasi ziren agertzen bizarrak Espainiako pop musikan), eta benetako iraultza eragin zuten indie-rock estiloko musikan, debutatu zutenean. Horri esker, talde hasiberri onenaren saria eman zioten 2010ean. Ordutik, etengabeak izan dira aintzatespenak eta, batik bat, zuzeneko emanaldiak Espainian eta atzerrian. Izan ere, Arizona Babyk pilo bat herrialdetara eraman du bere musika: Greziara, AEBra, Erresuma Batura, Hungariara, Alemaniara, Mexikora... baita Albaniara ere. Horri guztiari Los Coronas taldearekin izandako abentura —Corizonas ikusgarriak— gehitu behar zaio. Azken urteotan, Arizona Babyk batez beste 50-60 kontzertu eman ditu urtean, eta Espainiako jaialdi nagusietan jo du (BBK Live, Arenal Sound, Sonorama, Low, Port America eta abarretan).

Arizona Baby han markatu un antes y un después en la música española. Con su indeleble sello de marca de austeridad sonora y filosofía básica, inauguraron en España el neofolk acústico, la imagen barbuda (justo tras ellos aparecieron las barbas en el pop nacional) y dieron un revolcón al indie-rock patrio con su fulminante debut, que les valió el premio a Grupo Revelación 2010. Desde entonces no han parado de recibir reconocimiento y sobre todo de tocar en directo. En España y fuera. Arizona Baby ha llevado su música a un montón de países: Grecia, USA, Reino Unido, Hungría, Alemania, México... hasta a Albania. Eso sin contar su aventura conjunta con Los Coronas, los espectaculares Corizonas. En los últimos años Arizona Baby han dado una media de 50/60 conciertos anuales y han actuado en los mas grandes festivales nacionales (BBK Live, Arenal Sound, Sonorama, Low, Port América, etc).



MAIATZAREN 8an MAYO

El patio de mi casa. PEZ LIMBO

A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 10 €

Egilea eta zuzendaria / Autora y directora: María Goiricelaya. Antzeleak / Intérpretes: Iñake Irastorza, Nagore González, Josune Vélez de Menizabal, Haizea Baiges, Martxelo Rubio, Jontxu Martínez y Egoitz Sánchez. Iraupena / Duración: 80 min.

ANTZERKIA / TEATRO

Euskal Herrian, ikastetxe bateko jolastokian, zazpi lagun jolasean ari dira. Ez dute elkar ezagutzen, baina hor daude, eremu horretan, zerbaitengatik.

Horrela hasten da «EL PATIO DE MI CASA» ikuskizuna. Inoiz hizpide izaten ez dugun horretaz hitz egiten du: euskal kontakizunaz —ez da bat, asko baizik— eta gure iritziz politikoa ezagutarazteko beldurraz, odolak pisu handia baitu oraindik herrialde honetan.

Bizikidetza zaila izan da beti Euskal Herrian. Izuaren urteek era askotako min asko eragin zituzten. Orain aurrera begiratu behar dugu, etorkizunera. Hausnarketa eta autokritika egin behar dugu. Baina, batez ere, elkar aurkitu behar dugu. Horixe da EL PATIO: bizikidetzako eremua, non ideologia ezberdinetako pertsonak elkarrekin bizi diren. Enpatia-ariketa da, askatasunari eta giza eskubideei eskainitako kanta. Besteari begietara begiratuta zauriak sendatu nahi dituen antzerki-ikuskizuna.

En el País Vasco, en el patio de un colegio. Siete personas juegan. No se conocen de nada, pero están ahí, en ese espacio... por algún motivo.

Este el arranque de “EL PATIO DE MI CASA”, un espectáculo que habla de aquello de lo que nunca hablamos: del relato vasco, que no es uno, sino muchos, y del miedo a revelar nuestra condición política dentro de un territorio donde hoy todavía pesa la sangre.

La convivencia en Euskal Herria siempre ha sido compleja. Los años de terror, causaron muchos y muy diversos dolores. Hoy toca mirar hacia delante, al futuro. Toca hacer reflexión y autocrítica. Pero sobre todo, toca encontrarnos. Esto es EL PATIO: un espacio de convivencia donde personas de diversas ideologías conviven, un ejercicio de empatía, un canto a la libertad y a los derechos humanos. Un espectáculo teatral que quiere sanar heridas mirando al otro a los ojos.



MAIATZAREN **15**ean MAYO

Zaldi urdina. ARTEDRAMA

A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 10 €

Egileak / Autores: **Unai Iturriaga eta Igor Elortza** Zuzendaritza / Dirección: **Ximun Fuchs Antzezleak** / Intérpretes: **Ander Lipus, Manex Fuchs, Urko Redondo, Miren Alcalá, Oier Zuñiga, Edurne Azkarate eta Olatz Beobide.** Iraupena /Duración: **90 min.**

Aingeru, 17 urteko mutil gaztea, desagertu egin da tekno jaialdi batean gazte bat bihotzekoak jota hil ondoren. Zaldi Urdina deitzen den droga berri batek eragin dio heriotza gazteari. Polizia Aingeruren bila dabil, trapitxeroa bera delakoan.

Ametz, Aingeruren 22 urteko arreba errebeldea da, gaztetxe eta bizimodu osasuntsu zalea. Ikerketa bat hasiko du, Karmen amona eta Simon udaltzain ohi traketsarekin batera. Aingeru poliziek baino lehena-go aurkitu behar dute, eta abokatu on batekin joan epaitegira. Astebeteren barruan, 18 urte bete baino lehen. Atzera kontaketa bat da.

Aingeru, un chico de 17 años, ha desaparecido tras la muerte de otro chaval, por infarto, en una fiesta tecno. Una nueva droga llamada caballo azul ha sido la causante y la policía trata de encontrar a Aingeru, sospechando que se trata del camello.

Ametz, de 22 años, es la hermana rebelde de Aingeru, de gaztetxe y vida sana. Junto a la amona Karmen y a Simón, el antiguo policía municipal, decide investigar. Su objetivo es encontrar a Aingeru antes que la policía y llevarlo al juzgado con un buen abogado, pero deben hacerlo en el plazo de una semana, antes de que Aingeru cumpla los 18 años. Es una cuenta atrás.



ANTZERKIA / TEATRO
(Euskeraz)

Dando el cante. LANERE

A las 22:15ean | Sarrera/Entrada: 8€

Egilea / Autor: Iker Vesga. Zuzendaria / Dirección: Elisa Niño Antzezlea / Intérprete: Nerea Gómez Iraupena / Dirección: 70 min.

LaNere kantari geldiezin da. Edozer egiten saiatzen da, baita Operación Triunfo saioko talentu berrien casting ezagunera aurkezten ere. Ordu asko itxaroten eman ondoren, gitarra eskuetan, epaimahaikide gogor haiek gozarazten hasi da eta... Tira, agian ez da Espainiako Amaia berria izango, baina gero geroakoak. Dando el Cante antzerki-lanaren mezua hauxe da: norberak gustuko duena egiteko beharra, ametsak betetzeko gogo eta arteari lotutako lanbide batean bizimodua irabazteko zailtasun ikaragarriak. Baina LaNere hori guztia eta askoz gehiago egiteko gai da. Bakarrizketa komiko eta arin baten bidez eta oparitzen dizkigun askotariko kantei esker, bere gorabeherak, ausardia eta umore-zentzu handia eza-gutuko ditugu.

LaNere es una cantante que no hay quien la pare. Ella lo intenta todo, hasta presentarse al conocido casting de nuevos talentos de Operación Triunfo. Tras largas horas de espera y guitarra en mano, comienza a deleitar a un jurado difícil... O bueno, quizá no sea la nueva Amaia de España, vale... ¡pero que le quiten lo bailao! Dando el Cante trata sobre la necesidad de dedicarse a lo que a uno le apasiona, sobre las ganas de cumplir un sueño y de la enorme dificultad de ganarse la vida con una profesión artística. Pero LaNere, puede con eso y con mucho más... A través de un monólogo cómico y ágil y con un surtido variado de canciones que LaNere nos regala, iremos conociendo las peripecias por las que ha pasado, su valentía y su gran sentido del humor.



Sarrerak | Entradas

Sarrerak aurretik erosteko: Abenduaren 11tik

BBK-ko orotako kutxazainetan edo www.bbk.es

- **Lobiano Kultur Gunean**, Goienkale 10
Astelehentik ostiralera 9:00etatik 21:00etara

Venta anticipada de entradas: Desde el 11 de diciembre

- **En los cajeros multiservicios** de la BBK o en www.bbk.es
- **En Lobiano Kultur Gunea**, Goienkale 10
De lunes a viernes de 9:00h a 21:00h

Helbidea | Dirección

Iparragirre z/g - Ermua - 48260 (Bizkaia) | Tfn. 943 708 700

www.ermua.es/ermuantzokia

ermuantzokia@udalermua.net



AYUNTAMIENTO DE ERMUA
ERMUKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



ermuapuntocultural
ermuapuntokulturala

ermuantzokia.